fallointestinal.com

# ESKUAK GARBITZEKO PROTOKOLOA

# ESKUAK GARBITZEKO PROTOKOLOA

*WHO Guidelines on Hand Hygiene in Health Care*



1-Banatu produktua esku-ahurrean



2. Igurtzi ahur bat bestearen kontra



3. Ahur bat beste eskuaren gainaren gainean, atzamarrak korapilatuz, eta alderantziz



4. Ahur bat bestearen kontra, atzamarrak korapilatuta



5. Ekin azazkal inguruko espazioei



6. Igurtzi errotazioan eskuineko erpurua ezkerreko ahurraren barruan eta alderantziz



7. Igurtzi eta biratu eskuineko eskuko atzamarrak elkarrekin ezkerreko ahurraren barruan eta alderantziz

**1**. Lehenengo eta behin, erantzi erlojua, eraztunak eta eskumuturrekoak. Eduki azazkalak garbi eta labur.

**2**. Aplikatu esku-ahurrean disoluzio hidroalkoholikoko dosi bat.

**3**. Banatu produktua 30 segundoz igurtziz; hedatu honela produktua: ahur bat bestearen aurka, ahurrak esku-gainen gainean, ahur bat bestearen gainean atzamarrak korapilatuta, atzamar-gainak ahurraren gainean, erpuruen igurtzi errotazionala, atzamar-puntak ahurren gainean igurtziz.

**4**. Ez lehortu eskuak; utzi produktuari lurruntzen eskuak igurtzi bitartean.

**Prozesuaren gutxi gorabeherako iraupena: 30 segundo**

- Eskuak argi eta garbi zikin edo kutsaturik badaude, ura eta xaboia erabili behar dira disoluzio hidroalkoholikoa baino lehen.
- Eskularruen erabilerak ez du esku-garbiketa ordezkatzen.

# ESKU-GARBIKETAREN 5 UNEAK

